

Inzineradora Urnietako Erratzu poligonoan jartzea proposatu du San Markosek

■ San Markos Mankomunitateko hondakinak erreko dira inzineradoran eta Gipuzkoako beste tokietako hondakinak ere bertan erretzea proposatu du San Markosek ■ Ondo bidean 2007rako martxan behar du.

INZINERADORA Urnietan jartzeko proposamena egin du San Markos mankomunitateak, aukerarik onena bera dela erabakita. Asteazkeneko bileran hartu zuten erabakia San Markos mankomunitatea osatzen duten 10 herrietako ordezkariak eta Roman Sudupe lehendakariak atzo egin zuten erabakia publiko, prentsaurrean. Ingenieria batek egin du estudioa eta herri guztietako leku posibleak aztertu ondoren aukeratu dute Urnietakoa, lekua, iristeko modua, haizearen norabidea eta abar kontuan hartuta. Ia aho batez onartu da erabakia prentsaurrean esandakoaren arabera, Urnietako 2 zinegotziak abstenitu egin baziren ere "herriko gainerako partiduekin eztabaidatu beharra dutelako".

San Markos edo Gipuzkoa guztirako
Sudupek atzo esandakoaren arabera, Diputazioarekin eta beste mankomunitateekin hitz egin nahi du orain San Markosek, inzineradoran Gipuzkoako gainerako hondakinak ere erre daitezten. Beste herriekiko solidaritateaz gain, interes ekonomikoak ere baditu horretan San Markosek, Suduperen hitzetan inzineradoran Diputazioak lagunduko bailuke. Printzipioz Txingudiko mankomunitatea kanpoan geldituko da, bere errauskailua egiteko proiektua oso aurreratua baitu.

Presazko kontua
San Markoseko bertederoa betetzen ari da eta 2006rako itxi beharko da aurreikusita dagoenez. Beraz, inzinerado-

ra egitea presazkoa da San Markosentzat eta mankomunitatearentzat edo Gipuzkoarentzat behar duen lehenbailehen erabaki beharko da atzo prentsaurrean esandakoaren arabera. Urte bukararako aurreproiektua enkargatu nahi da eta horretarako zenbat hondakin hartuko duen jakin beharra dago.

Azken eskailera maila
Roman Sudupek argi utzi nahi izan du, inzineradora prozesu guzti baten azken eskailera maila dela: "gure apustua da ahalik eta hondakin gehiena errekerperatu eta berziklatzea eta gainerako hondakinak inzineratuko dira". Gaur egun hondakinaren % 25 berziklatzen da eta 2016rako % 46 berziklatzea da helburua. □

INZINERADORA

- Estimazioa da, 275.000 tonelada zabor inzineratuko dituela urtean.

- 5-6 hektarea izango ditu inzineradora planta osoak.

- Aurreproiektua urte bukararako egin nahi da.

- 2007ko Udararako bukatua egotea espero da.

- San Markos bertederoa 2006rako itxiko dute.

- 120 milioi kostako da inzineradora eta esplotazio kosteak 10 milioi euro dira urtean.

- 43 pertsonak lan egingo dute eta sortzen den energiarekin 6,3 milioi euro aterako dira urtean.

Joxan Pagola gaur askatuko dute, 20 urte kartzelan pasata

JOXAN Pagola *Beltza* gaur utziko dute libre, 20 urte kartzelan pasa eta gero. Pagola Algecirasen dago eta Anmistiaren Aldeko Mugimenduak espero du gaur eguerdi aldean libre uztea. Hernanira iristean, Joxan Pagolari ongietorria egingo zaio Garinen, zer ordutan izango den. Antolatzaileek erne egoteko deia egin dute. □

Udalak espero baino ia 60 milioi pezeta gehiago jasoko ditu Diputaziotik

HERNANIKO Udalak 7.734.359 euro jasoko ditu aurten Diputaziotik, hasieran aurreikusi baino 355.619 euro gehiago. Foru Aldundiak uste baino diru sarrera hobeak izan ditu eta horrek ekarri du udaletxeentzat ere hasieran kalkulatu baino % 4,8 gehiago izatea. Datorren urtera begira, igoera % 3,5ekoa izatea espero du Diputazioak.

Bestalde, Foru Aldundiek udaletako aurrekontuak nola osatu arautuko duen legea egingo dute eta urte bukararako aurreratua egotea espero dute. □

■ ERRUGBIA

Euskadik 12-6 irabazi Lombardiari

EUSKADIKO selekzioa Europako bigarren mailako txapelketa jokatzeko ari da eta eta joan den asteburuan 12-6 irabazi zion Lombardiari. Selekzioan Hernaniko 4 errugbilari daude: Gorka Sarasola, Pedro Jose Davila, Garikoitz Barrio eta Jon Insausti.

Hurrengo partidua Eibarren jokatu du Euskadik, Frantziako Provenzaren kontra. □

Guardia Zibilak Juan Mari Larrarte hernaniarra eta kultur munduko beste 7 pertsona atxilotu ditu

■ Larrarte atzo goizaldeko 01:45etan atxilotu zuten, etxean ■ Gaur kontzentrazioa, Kontseiluak deituta.

JUAN del Olmo epaileak aginduta, Martin Ugalde Kultur Parkea osatzen duten enpresen kontrako operazioa egin du Guardia Zibilak eta 8 pertsona atxilotu ditu: Juan Mari Larrarte, Joxe Mari Sors, Mikel Arrizabalaga, Armando Hernandez, Angel Ramon Diez, Mikel Azkune, Xabier Legarra eta Mikel Sorozabal.

Juan Mari Larrarte Buruntzape S.L. enpresako kudeatzaile da eta Berria egunkariako Administrazio Kontseiluko idazkaria ere bai.

Angel Acebes ministroak esan duenez kultur gintzako zortzi pertsona horiek "irregularitate ekonomikoekin lotuta egongo lirarteke".

"Etxe guztia miatu dute"
Baldomera Telletxea Juan Mari Larrarteren amak Berriari adierazi dionez, Guardia Zibilak etxea goitik behera miatu du: "Aurrena gurea (gurasoena), gero gora joan dira eta han denbora asko pasa dute, eta behean ere garajea eta ikuiluak eta guztia miatu dute". Larrarteren amaren



Juan Mari Larrarte

esanetan, bi furgoneta, bi kotxe eta bizpauru patrol izan dira atxilotetan.

Hernanin, euskalgintzako zenbait eragilek bat egin dute Kontseiluak deitutako protesta eta elkartasun ekintzekin. Gaur, 20:00etan kontzentrazioa egingo da Udaletxe aurrean. Larunbatean, manifestazioa egingo da Donostian, 17:00etan Antiguotik aterata. Urriaren 20an, astelehenean, Egunkariako langileek egiten duten kontzentrazioan parte hartzera deitu du Kontseiluak. □

ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita kalea 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK
Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46
Hernani

ANTZIOLA TABERNA
"Mus azkarra"
ostiraletan, 23:00etan
SARIAK:
1. 2 urdaiazpiko edo 12 txuleta +
2 langostino kaja + 2 txanpain bot.
2. 6 kilo kostila + 2 langostino kaja
+ 2 ardo botila
3. 2 koneju + 2 txanpain bot + 2 ardo bot
4. 2 txanpain botila + 2 ardo botila
INSKRIPZIOA: 12 euro bikoteko
ERREGULARITATEA: Hilabeteko
puntuaziorik altuena 60 euro.
ANTZIOLA TABERNA
Antziola auzoa 1 - 943 55 54 99

Ibai-mendi
Marka onenak dauzkagu:
TRANGO
TERNUA
COLUMBIA
THE NORTH FACE
SALOMON
BOREAL
TUCKLAND
KAMET
CHIRUCA
Nafar kalea 24 - 943 333724 - Hernani | Nagusia 18 - 943 590372 - Andoain

ZIMAK
ILEAPAINDEGIA
Iturregi, 2 - 1ºB
Hernani
Tel.: 943 556556



Udaleko, Doberako, AEKko, eta ikastetxeetako ordezkariak atzo prentsaurrean.

Helduek euskeraz hitz egiteko kanpaina hasiko dute ikastetxeek, AEK-k eta Doberak

- Helduei zuzendutako kanpaina da, baina, gurasoak nahi dira kontzientziatu bereziki
- Batz best % 27 egiten da euskeraz Hernanin eta horrek kezkatuta hasi dute kanpaina.

DOBERA Euskara Elkarteak, Langile eta Elizatxo ikastetxeek eta AEK euskaltegiak kanpaina hasi dute helduak euskeraz hitz egitera animatzeko. Nahi duenak eman lezake izena ikastetxeetan, AEKn edo Doberan eta hemen arduratuko dira taldeak egin eta bitartekoak jartzeko. Kanpaina Udalak laguntzen du.

Talde bakoitzaren esku

Zer eta nola lan egin talde bakoitzak erabakiko du. Ikastetxeek AEKk eta Doberak bitartekoak jarriko dituzte eta laguntza eman, baina, non eta zer egin nahi duten taldearen esku geldituko da. Eguneroko

kafea hartu eta euskeraz hitz egiteko gogoia dutela: ba horixe egingo dute; larunbat goizetan seme-alaben partiduak ikusteko elkartu nahi dutela, antzerkira joan nahi dutela... hori bai euskeraz hitz eginez egingo dituzte ekintzak. Gainera, gomendio batzuk emango zaizkie etsi gabe aurrera egiteko.

Euskerazko egitaraua

Antolatzaileek herrian dagoen euskerako eskaintza bildu eta kide bakoitzari emateko asmoa dute, eguneroko bizitzan euskerazko ekitaldiak zeintzuk diren jakin dezaten. Kanpaina martxan jartzea pentsatu zuten

Hernanin zenbat euskera erabiltzen den jakin ondoren. Estudioaren arabera % 27k hitz egiten du euskera Hernanin, nahiz eta herritarren erdiak baino gehiagok jakin.

EUSKERA HERNANIN

JAKIN

Umeak % 45
Helduak % 80
Guztira % 45

HITZ EGIN

Umeak % 43
Helduek % 24
Guztira % 27

Eskola Kirola bihar hasiko da Hernanin

ESKOLA kirola bihar hasiko da Hernaniko neska mutilentzat. Urumea, Langile, Elizatxo, Inmaculada eta Txirritako ikasleek hartuko dute parte, baina, kopuruak oraindik ez

dituzte eman. Eskola Kirola Diputazioak bultzatzen du Gipuzkoa guztirako eta Hernaniko Udal Kirol Patronatuak dararak aurrera, ikastetxe eta klubekin elkarlanean. Umeek

kirol desberdin asko egiteko aukera izaten dute, konpetizioan eta konpetizioz kanpo, kirola egiten erakutsi eta gerora nahi duten kirola aukeratzeko oina-rria izan dezaten. □



Jubilatuak Gandiara egindako eskurtsioan. (Arg: Biyok)

JUBILATU ETXEA

Azagrara joan nahi duenak lekua badu oraindik

JUBILATU Etxeak Azagrarako egun osoko eskurtsioa antolatu du urriaren 20rako, datorren astelehenerako. Elkartek Kronikari adierazi dio eskurtsio horretara joan nahi duenak oraindik baduela autobusean lekua. □

HITZ BITAN

✓ ZINEA BITERIN

‘Piratas del Caribe’ eta ‘La gran película de Piglet’. Gaur hasiko da Biteriko zine emanaldia eta asteburu honetan bi pelikula izango dira. Helduentzat, *Piratas del Caribe*, gaur 22:30etan, larunbatean 19:30etan eta 22:30etan, eta igandean 19:30etan. Umeentzat, berriz, *La gran película de Piglet* izango da larunbatean eta igandea 17:00etan.

✓ GURE ETXOLA

Guatemalari buruzko hitzaldia. Gaur 18:30etan Biterin, Guatemalari buruzko hitzaldia izango da, Gure Etxolako elkarteko *Hirugarren Mundua eta Hirugarren adina* taldearen eskutik. □

JASOTA BEZALA

JOAMARI, GUREKIN NAHI ZAITUGU!!!

Añua-Berriko artzaina eraman dute eta lagunak triste gaude. Alaia, langile eta zintzoa da gure artzaina horregatik eraman dute. Euskal Herria osoa du zelai eta euskara da Joamariren artaldea, otso beltzek horregatik eraman dute. Gau eta egun aritu da bere artaldea zaintzen: bide egokienak bila-

tzen, larre gozoenak aurkitzen, mina hartutako ardiak sendatzen. Nekaezina da gure artzaina txikia. Aurrerantzean ere horrela jarraituko du. Saminaz gainezka gaude gaur, aurreko astean hogeita hamalau famili egon ziren bezala. Horregatik diogu, Joamari eta beste guzti guztiak, gurekin nahi zaituztegu.

Mikel Arrieta Iraola


✠ NEMESIO ZEBERIO ARANBURU

JAUNA

2003ko urriaren 16an hil zen, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Bere emaztea: Pilar Zubiarrain; seme-alabak: Pili eta Antxon, Carmen eta Felix, Jose Ramon eta Manoli, Mirari, Amaia eta Manuel; anai-arrebak: Milagros (Jose Esnalen alarguna), Rosa, Felix, M^oJesus Zabalo (Miguel Larretaren alarguna); ezkon anai-arrebak: Matias Uribe, Maritxu Balda, Margari (Vicente Irastorzaren alarguna), Josepa, Martina eta Txomin Galatas; bilobak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde oititz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte, OSTIRALA 17an, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JUAN BAUTISTA parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko urriaren 17an

Helbidea: Arriatsu Baseria (Osiñaga Auzoa)
Oharra: Hilbeila Vascongada Ehortzeko Tanatorioan dago (Errekalde auzoa).

✠ MARIA PILAR ZUBIARRAIN ARRUTI

ANDREA

(DAMAXO URIAREN ALARGUNA)

Atzo hil zen Hernanin, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Haren seme-alabak: Edorta eta Mari Karmen Garin, Juan Joxe eta Garbiñe Gigorro; ahizpa: Axun; koinatua: Julian Ezeiza; bilobak: Larraitx, Maddi, Aiheko eta Nerea; ilobak: Ane, Marijo, Ander, Pili eta Arantxa; lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde oititz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JUAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko urriaren 17an

Helbidea: Zikuñaga auzoa, 47 - 2. - Aterpe etxea
Oharra: Gorpua Orbegozo Ehorzketa Tanatorio berrian (Kiroldegiaren ondoan) dago.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☛Taxiak: 943 550093
- ☛Udalzaingoa: 943 333288
- ☛DYA: 943 464622
- ☛Autobusak: 943 556662
- ☛Anbulatorioa: 943 006666
- ☛Jokalarari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☛Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ☛Gaez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

Erugbia	Taldeak	Non	No iz	Pelota
Benjam inak	Langile A -Urum ea A	Kirol Hegia	B har09:15	A lebinak
Benjam inak	Langile A -Urum ea A	Kirol Hegia	B har09:15	A lebinak
Benjam inak	Langile B -Urum ea A	Kirol Hegia	B har10:00	Urum ea A -Langile E
Benjam inak	Urum ea C -Langile C	Kirol Hegia	B har10:00	Urum ea C -E lizabto A
Benjam inak	Langile B -Inmaculada	Kirol Hegia	B har10:45	Langile C -Langile D
Benjam inak	Urum ea B -E lizabto A	Kirol Hegia	B har11:30	Urum ea B -Txirritxo
Benjam inak	Urum ea B -E lizabto C	Kirol Hegia	B har12:15	Urum ea B -Txirritxo
Saskibaloia				
A lebin mutilak	Langile E lizabto A	Kirol Hegia	B har11:00	Urum ea A -Inmaculada
A lebin mutilak	Langile E lizabto B	Kirol Hegia	B har12:00	Urum ea B -Urum ea B
A lebin neskek	Langile-Urum ea	Kirol Hegia	B har12:00	Langile-Urum ea

IRAGARKI MERKEAK

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar baduzu deitu: **656 78 64 15 (Kepa)**

Lokala alokatzen da. 53 m² dauka eta zentro-zentroan dago. Interesatuak deitu telefono honetara: **646 27 54 63**

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:00etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : **658 73 88 32**